

# Ai, ardoa




ARITZ GALARRAGA

**P**linio zaharraren pasarterik maiteena, aldiz –ezagutzen dizkiodanen artean, noski, ez baititut *Naturalis Historia*-ko 37 liburukiak irakurri-, ez da pasa den zutabeen aipatu genuen zazpigarren liburuko hogeita laugarren kapitulua, hain justu oroimenaz ari dena, baizik eta hamalagarrena, osorik hamalagarren alekia, mahasti, mahastizaintza, mahatsaren hartziduratik sortzen den zukuaren arteaz diharduena: *Ardoaren liburua*. Duela ia 2.000 urte idatzia, ardogintzari buruzko antzinako eta garrantzitsuenetakoa, garaiko jakinduria guztia barnebiltzen du.

Egia da pasarte batzuetan gehiegizkoa dela informazioa, azkenerako mozkortzen zara hainbeste erreferentzia, adibidez egiten badu mahats mota guztien zerrenda; baina kontrara baditu pasarte gozo askoak, guztiak ere erromatar munduaren bizimodu pribatu nahiz publikoaren erakusleak, sarri gureen harrigarriro antzekoak. Aipatzen baditu kontsumo ohiturak, debekuak, erabilera terapeutikoak, eta ez bakarrik arimarenak. Heriotzaren gertutasunarekiko sendagai gisa erabiltzen baitzen. Jendea biziberritzen zuen. Neurrian hartuta beti ere. Bestelakoan, "biharamunean hatsak zahato kiratsa dauka, eta ahanztura hegaldatzen da gauza guztien ginetik: hila da memoria".

Ai, ardoa. Gizonaren –eta emakumearen, noski– enganioa. Badakit udan sartu berri garen honetan akaso aiseago sartzan zai-gula zerbeza, edo sangria; ez ahantz ordea ardoa dela askotari-koa, Plinioren arabera zuri, hori, odol, beltz, are gehi diezaiokezu ezta. Baina jakin edaten baduzu ari zarela barneratzen mende luzeetako jakinduria, Odisean jada agertzen dena, Biblian, are Jesusek berak bultzatzen gaituela: "Har ezazue guztiok eta edan honetatik". Ardoa edatea zibilizazio egintza baita. Paper zentrala izan du humanitatearen etapa zein geruza sozial guztietan. Eta doan lekura doala, basakeria zegoen lekuan, kultura hedatzen du. Neurrian hartuta beti ere. Edo ez, tarteka. ●



## "GAY NAIZELA ESAN NAHI DUT. IKUSGARRITASUNA INPORTANTEA DA"

### CARL NASSIB, FUTBOL AMERIKARREKO JOKALARIA

Sexu askapenaren hilabetea ospatu den honetan, gizonezkoen kirol munduan hain ezohikoa den pausoa eman du Nassibek, armairutik ateratzeak kirolariak idolotzat dituzten haur eta gazteei lagungarri gerta dakiekelakoan. Lehenengo aldia da futbol amerikarrek jokalaria bat armairutik atera dena NFL ligan. "Triste da, une honetatik agonia sentitu dut azken hamabost urteotan. Duela gutxi, eta nire familiari eta lagunei esker, publikoki eta harro esan ahal izan dut gay naizela." **2021/06/22**